

Hona hemen Nafarroako Gobernuaren kultura egitaraua datorren asterako

ANTZERKIA

[Lunáticus Circus](#)

Teatro Paraíso

Larunbata. 17.00etan

Baluarte Txiki Programa

Antolatzailea: Baluarte Fundazioa

18:30etan: Euskaraz

Teatro Paraíso

Neska-mutikoentzako Antzerkigintzako Europako Ferian (FETÉN 2016) eszenografia onenaren saria eskuratuta, Lunáticus Circus amesteko, barre egiteko, bidaiatzeko eta errealitatea eraldatzera jolasteko zirkua da. Zirku hauskor eta akastuna da, freskoa eta ausarta, bizitasunez betea eta ezusteko asko dituena. Istorio honetako protagonistak diren hiru eskaleek bizitzako abentura berri bati nola ekiten dioten eta beren ametsak nola bihurtzen dituzten egia ikusita gozatzeko aukera izango dute ikus-entzuleek.

[Emakumeak eta neskatxak](#)

Nafarroako Liburutegia. Lehen solairuko aretoa.

Asteazkena / 18:30h

Hizlaria: Circunstanzia antzerki eta dantza konpainia (Ana Jakaren testuetan oinarrituta)

Sarrea doan eserlekuak agortu arte.

BESTELAKOAK

[Octubre Archimusal](#)

Errege Artxibo Nagusia - Areto Nagusia

Asteazkena. 10.00etan

Hilaren 17an Jesus García Leoz musikagilearen sorkuntzak omenduko dira, izan ere bere lana Artxibo Nagusian gordeta dago.

Goizeko hamarretan Laura Celayak idatzitako liburua aurkeztuko da, "Jesús García Leoz, un legado interrumpido (1904-1953)".

Arratsaldeko zazpitan, berriz, Celayak berak García Leozen bizitza eta lanak aztertuko ditu. Arratsalde horretan bertan, hitzaldia bitartean, erriberriko konpositorearen harparako "Interruptu" lana izanen da ikusgai, Alicia Griffiths Turrillas harpa-jolearen eskutik.

[Arte Gaztea](#)

Huarte zentroa

2018/09/28 - 2018/10/17

Arte Gaztea lehiaketako aurkezpena irailaren 28an egingo da Uharte Zentroan arratsaldeko 18:30ean. Ordutik, urriaren 7a arte, ikusgai egongo dira arte plastikoen modalitatean sailkatuak izan diren lanak. Ondorengo egunetarako hainbat lantegi eta ekimen antolatu dira, guztiak, interesa duen edonori irekita daude. Lantegietan parte hartzeko, izena eman behar da eposta bat bidaliz encuentros@navarra.es

helbidean.

BISITAK ETA IBILALDIAK

Pasaporteak jMuseatu! eta bidaiatu

Museoak eta bildumak

2018/04/20 - 2018/10/20

Bidaia bat prestatzea inoiz ez da hain erraza izan. Pasaporteak hiri eta herri berezietara txango motzak planifikatzea ahalbidetuko dizu eta arte garaikide, arte eder, arkeologia, etnografia eta pertsonaia bereziei buruzko museoetan esperientzia paregabeak bizitzeko aukera izango duzu. Anitzak eta kalitate onekoak diren bildumak eta testigantzak agertzen dituzten museo xarmangarriak. Eta hori guztia, Nafarroatik atera gabe.

Taldean edo familiarekin, bikotearekin edo bakarrik, hamahiru museo eta bilduma hauek zain dituzu haien bilduma eta jardueraz zurekin gozatzeko. Gainera, hiru baino gehiago bisitatzen badituzu, sariak lor ditzakezu.

Pasaporteak pertsonala eta/ edo familiarra da. Doakoa da eta hamahiru zentroetan eskuratu daiteke sarreran. Erakunde bakoitzaren zigilua bisita egindakoan eskuratuko da.

Tuterako katedraleko Judizioaren Ateko

Tuterako katedraleko

Larunbata, igandea. 10:00etan 10:45etan, 11:30etan, 12:15etan, 13:00etan.

Bisiten iraupena ordu erdi ingurukoa izango da eta gehienez 10 pertsona sartu ahalko dira txanda bakoitzean.

Katedraleko klaustroaren lanak

Iruñeko katedrala

Igandea. 10.00etan, 11.00etan, 12.00etan

Bisitak doakoak dira, eta hiru ordu hauetan egiten dira: 10:00, 11:00 eta 12:00etan. Ordubeteko iraupena dute, gutxi gorabehera. 14 urtetik gorakoak izan behar dute bisitariak, eta mugikortasun-arazorik ez izan. Oinetako lau eta erosoak eraman beharko dituzte, obrako aldamiotik ibili beharko baitute.

ERAKUSKETAK

Baxenabarre, lurralde berezia/ Basse Navarre

Nafarroako Errege Artxibo Nagusia (Areto Nagusia)

2018/10/10 - 2019/01/13

Susana Herreros Lopetegik komisariatutako erakusketa hau bi zatitan taldekatutako 16 beira-arasez osatuta dago, eta horietan, esparru txiki eta estrategiko horren bilakaera jarri dute ikusgai, jatorrietatik Frantziako Iraultzaren (1789) ondorioz erresuma bezala desagertu zen arte.

Isidoro Fagoaga Larrache (1893-1976)

Nafarroako Artxiboan

2018/10/01 - 2018/10/31

“Isidoro Fagoaga Larrache (1893-1976)” erakusketa doakoa da, eta hilabete

osoan zabalik egongo da Nafarroako Errege Artxibo Nagusiko beheko galerian. 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara bisita daiteke asteko egun guztietan, asteburuak eta jai-egunak barne.

Nafarroako Errege Artxibo Nagusian “Isidoro Fagoaga Larrache (1893-1976)” erakusketa ikusgai izango da urrian zehar; hau da, Berako tenorearen eta idazlearen ibilbideari eskainitako mikroerakusketa, jaio zenetik 125 urte betetzearekin batera, eta Ondarearen Europako Jardunaldien barruan kokatuta. Era berean, haren irudia glosatze aldera, urriaren 5ean, ostiralean, 19:00etan, baita ere Nafarroako Artxiboan, “Los baúles de Sigfrido Fagoaga” izeneko hitzaldia eskainiko du Germán Ereña ikertzaileak, eta tenorearen ahots orijinala duten entzunaldiak entzun ahal izango dira.

[Macla, mamua, bismuto, vicario](#)

Oteiza Museoak

2018/07/27 - 2018/11/30

Oteiza Museoaren produkzioa, Huarte Arte Garaikideko Zentroaren partaidetza. Lankideak: “la Caixa” Fundazioa, Nafarroako Kutxa Fundazioa, Eguesibarko Udala eta Caniche Argitaletxea.

Oteiza Museoak “Macla, mamua, bismuto, vicario” erakusketa proiektua aurkezten du. Oteizaren obrari buruzko erakusketa interbentzio hau Karlos Martínez B. eta Javier Arbizu artistek berariaz ondu dute Altzuzako zentrorako eta Hazitegia programako lehen interbentzioa izango da.

KONFERENTZIAK

[Emakume Idazleen Eguna](#)

Nafarroako Liburutegia

Astelehena. 18.30etan

Ekitaldian 18:30ean hasiko dira María del Villar Berruezo poeta eta dantzariaren omenezko erakusketa baten inaugurazioarekin.

Heldu den astelehenean, urriak 15, Nafarroako Liburutegiak Emakume Idazleen Eguna ospatuko du ondoz ondoko hirugarren urtez; aurten, “Emakume erreboltariak eta urratzaileak” lemapean. Ekitaldi guztiak proiektzio aretoan egingen dira 18:30etik aurrera.

[“Orain pentsatu, mundua pentsatu”](#)

Nafarroako Liburutegia. Proiektzio Aretoa

Asteartea / 19:00h.

Hizlaria: Fernando Pérez Borbujo

Izenburua: “Giorgio Agamben artistaren lanaren panoramika: haurtzarora eta eskatologia”.

Sarrea doan eserlekuak agortu arte.

[María del Villar Berruezo](#)

Nafarroako Liburutegia. Lehen solairuko aretoa.

Osteguna / 18:00h.

Hizlariak: Marina Aoiz, María José Berruezo eta losu Cabarbayen.

Sarrea doan eserlekuak agortu arte.

[Nafarroako Irakurle Taldeen 8. Topaketa](#)

Musikaren Hiria - Auditoriuma

Larunbata. 09:30h.

Hizlariak: Herman Koch, "La cena"-ren egilea; Ignacio Escolar eta Joaquim Bosch, "El secuestro de la justicia: Virtudes y problemas del sistema judicial español" lanaren egileak.

Sarrera aurreko izen-ematearekin

Ordutegia: 9.30-14.30 horas.

KONTZERTUAK

[Nafarroako Orkestra Sinfonikoa](#)

Baluarte (Areto Nagusia)

Osteguna, ostirala. 20.00etan

2. Kontzertua. NOS Denboraldia 'Eraikitzen'

Antolatzailea: Baluarte Fundazioa

Nafarroako Orkestra Sinfonikoa

Zuzendaria: Antoni Wit

Bakarlariak: Tianwa Yang, biolina, Gabriel Schwabe, biolontxelo

[David González de la Viña, Iñigo Remírez de Ganuza](#)

Organo Musika Nafarroan

Tafallako Andre Maria eliza

Larunbata. 17.45etan

Kontzertu honek XVII.eta XVIII.mendeetako musikaren ikuspegi berritzai- lea erakutsi nahi digu;izan ere,musikaren egileek eratu zuten gisan entzuteaz gain,XX. mendeko konpositoreek sentitu duten gisan jasoko dugu.

TAILERRAK

[Sol y sombra](#)

Huarte Zentroa

19/10/2018 - 02/12/2018

Sortzaileak: Beatriz Sánchez eta Iñigo Cabezafuego

Sol y sombra aurkakoak diren elementuz osatutako edabe hordigarria da, zeinetan baikortasun dosi adina zirikatze eransten den. Eraitza eztenkada galanta da, edari honi ematen zaion izen peto-petoaren berdina.

[Gainazalarekin egin \(Hemen dauden liburuak\)](#)

Uharte Zentroa

Astelehenetik ostegunera

Egilea: Aimar Arriola

2016az geroztik Aimar Arriola "Zer da gainazalarekin egitea?" galderari gerturatzeak proposatzen ari da. Galdera hau, espekulatzailea eta zehatza da era berean, gauzeekin, hauen ustezko esanahiek ezkututzen dutenetik haratago harremantzera gonbidatzen du. Oraingo honetan, Arriolak, galdera hori "liburua" objektuaren inguruan egitea proposatzen du.

[Ongietorri ipuinetara](#)

Nafarroako Liburutegia asteazkena. 18.00etan

Asteazkenero, gurasoek eta beste boluntario batzuek ipuinak irakurtzen dizkiete haurrei gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez.

[Ez egitearen laborategia](#)

Nafarroako Museoa Christina Schultz.

Datak: urriak 20, larunbata (11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara) eta urriak 21, igandea (11:00etatik 14:00etara)
Helduendako da (16 urtetik gorakoendako)

[Herbario basatia](#)

Huarte sentore

Larunbata. 11.15etan

Ilustrazio laborategia.

Cristina Jiménez Gómez.

Epea: Urriak 18

Norentzat!: Autoedizioan eta ilustrazioan interesa duen edozein adinetako pertsoneri zuzendua

Erdia aroko herbario ilustratuen argitalpenen errepresentazioak, ez ziren bildu edo gordetako landareetan oinarritzen, errepresentazio haiek egiteko irudi zaharragoetan oinarritu ohi ziren, eta gehienek, ez zuten zehaztasun zientifikorik. Kontzeptu magikoetan, astrologikoetan edo giza-gorputzen eta animalien gorputzen antza morfologikoetan oinarrituak zeuden.

[Periferia Birpentsatu Etxabakoitzen](#)

Huarte zentroa

2018/10/08 - 2018/11/03

EGILEA: Orekari Estudio / Enter This

Periferia Birpentsatuk, periferiako auzoetan espazio publikoa ber-bereganatuz, kultura garaikidea gerturatu nahi du.

ZINEMA

[Sangre, sudor y lágrimas](#)

Nafarroako Filmoteka

2018/10/17 | 20.00etan

Gerra oraindik gertatzen ari zela Bigarren Munduko Gerrari buruz egin zen film bakarrenetarikoa bat izan zen. Gerra-itsasontzi baten barruan gertatzen da eta filmak dokumentalaren itxura nabaria du, baita goraipamen patriotikoa ere, helburu nagusia hori ez izan arren. Filmak garrantzia handiagoa ematen dio pertsonaien bizitzari. Ez dira heroiak, egoera berezi batean elkarri aurka egin behar dioten jende arrunta baizik, baina elkartasun sentimendu indartsu batek lotuta.

Zuzendaritza : David Lean, Noël Coward

[Home Movie Day](#)

Nafarroako Filmoteka

Osteguna. 20.00etan

Nafarroako Filmoteka, beste behin ere, Home Movie Dayospakizunera atxikitzen da, familia-zinemara eta zinema amateurrera eskainitako nazioarteko egunera hain zuzen.

[Omar](#)

Nafarroako Filmotek

Ostirala. 20.00etan

Omarren gai nagusia konfiantza da, giza-harremanetan duen garrantzia eta bere lurrunkortasuna. Konfiantza maitasunaren, adiskidetasunaren eta leialtasunaren oinarrian dago. Ukiezina da, eta indartsua eta ahula izan daiteke aldi berean.